

3.15. Iñaki Aldekoa Larrañaga

Testuari lehenengo gerturapen amateur bat. Euskera batua ezagutzen duen hizkuntzazale batentzat edozein euskalkia entzutean testuingurua jakinda esaldien esanahi orokorra hartzen du(gu) hitez hitzeko esanahia zaila egiten zaigunean; honela, esaldien estrukturaren barnean gelditzen diren hitz ezezagunei sentzua hartzen zaio intuizioa erabiliz. Beraz, saiakera honetan testua “lehenengo begirada” batean zer esan nahi duen ulertzen saiatzean agertzen da, gaur egungo euskalki ezezagun batean, ate baten inguruan eskegita dagoen esku batean idatzita egongo balitz. Esku hau, gaur egun oraindik eskegitzen diren ekiloreen funtzio antzekoa izango zuenak (kutun bat bezala).

Hitzak non moztu:

Sorion egun
teneke be eki-r-ate-r-en
oñi-r-tan eseakari
eraukon

Nola interpretatu:

Sorion egun(a)
teneke be(go?) ekirateren
oñirtan eseakari
eraukon

Esanahia:

Zorion eguna
eukola(/izan dezan) eki atearen
oinetan eskigailu (hau)
daukonak